



SUPER AMARA TXIKIEN GABONETAKO VII. KROSA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldea eskualdeko atletismo elkarteak, Irungo Udalaren laguntzarekin, SUPER AMARA TXIKIEN GABONETAKO VII. Krosa antolatu du 2022ko abenduaren 17ko, larunbat arratsalderako.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1 eta 11 urte bitarteko edozein haurrek parte hartu ahal izango du. 2011 urtetik (hau barne) aurrera jaiotako haurrak. Txikienek beren gurasoek lagunduta irten ahal izango dute.

3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak irailaren 21an irekiko dira eta **erabat dohain** izango dira. Edizio honetan aukeratutako proiektu solidarioari 1€ emateko aukera izango dute partaideek.

3.1.- INSKRIPZIOA EGITEKO ERA

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: www.kirolprobak.com irailaren 21tik aurrera. On-line inskripzioak abenduaren 16an (20:00) itxiko dira eta proba egingo den egun berean izena eman ahal izango da irteera puntuan (Luis Mariano), 600 dortsalak bukatu ez badira.

Pertsonalki Bidasoa Atletiko Taldeko bulegoetan izena emateko aukera ematen dugu, Leandro Agirretxe plaza 1. znb, 2. solairua, 8. bulegoa (Palmera Montero eraikina), hurrengo ordutegian: astelehenetik ostiralera 9.00tik 14.00ra.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Abenduaren 16a, ostirala, baino lehen eginiko izenemate haientzat, dortsala Palmera Montero eraikinean izango dugun gela batean, Leandro Agirretxe plazan jaso ahal izango da ondorengo egun eta orduetan:

ABENDUAK 16, OSTIRALA: 17.00 -21.00

ABENDUAK 17, LARUNBATA: 10.00 -12.30

Egun horretan dortsalak jasotzen ez badira, zuzenean lasterketa egunean bertan jasoko dira, irteera gunean. Antolakuntzak abisatzen du hobe dela garaiz egitea gero ilaran egon beharrik ez izateko, lasterketak ezin dira atzeratu eta.

5. ARTIKULUA - LASTERKETEN ORDUTEGIA

Haurren lasterketak ordu hauetan egingo dira (behin behineko orudtegia, aldaketak egon daitezke izen ematearen arabera):

- 15h30 · 2020-2021ean jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h35 · 2019an jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h40 · 2018an jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h45 · 2017an jaiotako neska-mutilak. 100 metroko distantzia
- 15h50 · Aurrebenjamin neskak. 2015-2016ean jaiotakoak. 200 metroko distantzia
- 15h55 · Aurrebenjamin mutilen 1en taldea. 2016an jaiotakoak. 200 metroko distantzia
- 16h00 · Aurrebenjamin mutilen 2en taldea. 2015ean jaiotakoak. 200 metroko distantzia
- 16h05 · Benjamin neskak(2013-2014). 400 metroko distantzia
- 16h10 · Benjamines mutilak (2013-2014). 400 metroko distantzia
- 16h15 · Alebin neskak (2011-2012). 800 metroko distantzia
- 16h20 · Alebin mutilak (2011-2012). 800 metroko distantzia

Antolakuntza egokia izan dadin eta beroketa-luzaketa batzuk egin ahal izateko, haur bakoitzak tokatzen zaion aurkezpen eta berotze eremura joan beharko du lasterketarako daukan ordua baino 15 minutu lehenago. Zona bakoitza adinaren arabera banatuta egongo da eta Super Amara BAT taldeko monitoreak egongo dira berotze ariketak egiteko eta frogaren irteerara eramateko.

6. ARTIKULUA.- SARIAK.

Parte hartzaile guztientzat diploma eta poltsa opari bat izango dute. Poltsan, Super Amarako merienda oparoa eta Marrubi dendako gozokiak egongo dira.

7. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izena ematen duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izena ematen dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabil ditzaten, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean (Ramon Iribarren kalea, 4 behea atzealdean 20304 Irun).